



## INFORMAZIO-GUTUNA

### INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GETXOKO ESPAZIOEN SAREA BULTZATZEKO KANPAINA

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela medio, indarkeria matxistarik gabeko gizartea eraikitzeke dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Ezberdintasunean, bereizkerian eta gizonek emakumeen gainean duten boterean oinarritutako indarkeria da, eta giza eskubideak ere urratzen ditu.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Getxo parekidea eraikitzeke dugun konpromisoaren baitan, indarkeria matxistekiko erabateko desadostasuna agertzeko asmoz, besteak beste, prebentzio- zein segurtasun-neurriak diseinatzeko ardura hartu behar dugu.

Kanpaina honen bitartez, Getxoko Udalak zuon inguruan gertatzen den indarkeria matxista oro gaitzesteko konpromisoa hartzera animatzen zaituzte, gizarteak bat egin dezan mezu bakar, argi eta irmo honekin: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO ESPAZIOA. Honela, INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GETXOKO ESPAZIOEN SAREA sortu dugu eta, sentsibilizazioaren nahiz prebentzioaren bidez, berdintasunaren aldeko aldaketa-espazioak sortzen lagunduko du.

Horretarako, honako ekintza hauetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu:

- Azaroaren 22an, 23an, 24an eta 25ean, erakusleihoak (edo antzeko elementuak) beltzez apaindu. Ahal den neurrian, objektu edo tresna guztiak beltzak izango dira.
- Konpromiso esplizitu horren bidez, indarkeria matxistaren aurkako eta berdintasunaren aldeko sarearekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Sare horretara atxikitako establezimenduei bereizgarri bat eskainiko zaie, beren erakusleihoetan edo toki ikusgarrietan jarri dezaten.

## Sarera atxikitzeke moduak

- Udaleko webgunearen bidez atxikitze-inprimaki bat betez; horretarako, parte hartzeko baldintzak onartu beharko dira. [Klikatu hemen](#)
- Aurrez aurre; horretarako, establezimendura norbait bertaratzeko eskatu beharko da. Mezu bat bidaliz honako helbidera: [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus) edo telefonoz deitu: 944 660 136

## Bereizgarriaren eskura emate.

- Berdintasun Zerbitzuan, 8:00-14:00, (Urgull kalea, z/g, Algorta) jaso ahalko dira bereizgarriak; halaber, establezimenduan bartan eskutara emateko eskatu ahalko da. Mezu bat bidaliz honako helbidera: [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus) edo telefonoz deitu: 944 660 136

-

Udalak sarera atxikitako establezimenduen zerrenda eguneratua izango du eta jendaurrean erakutsiko du.

Getxo, 2019ko azaroaren 4a